



ALKATE EUSKALDUNA

Andoaingo Euskal Herrian Euskaraz taldeak martxoaren hasieran «Andoaingo Alkatea: euskalduna, noski!» egin berri duen kanpainaren aurrean, eta aintzakotzat izanik huts-hutsik kanpaina horren oinarrizko eskakizuna, hau da, Andoainek hurrengo legealdian alkate euskalduna eta euskaltzalea izatea, Larramendi Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak, Andoaingo Biltzarrak bilerarik egiteko aukerarik izan ez duenez, egokitzen jo du eskakizun hori aztertu eta ondoko adierazpena egitea oso bereziki Andoaingo alderdi politiko eta hautes-talde guztiei, eta baita ere, oro har, andoaindarrei, Kultur Bazkuneko bazkide guztiei eta komunikabideei:

1.- Erabat bidezko eta zilegitzat jotzen du Euskal Herrian Euskaraz taldeak bere kanpainan planteatutako eskakizuna, Andoainek hurrengo legealdian alkate euskalduna eta euskaltzalea izatea alegia, oso bereziki ondoko puntuok kontutan izanik:

1.1.- Andoainen, egun, bi hizkuntza elkarrekin bizi dira, baina euskara herrian erabateko normaltasunez erabiltzetik urrun dago oraindik eta oso urruti gazteleraren baldintza beretan bizitzetik ere. Egoera horrek euskaldunongan larritasuna eta premia sortzen du, eta horren beraren aurrean eragile sozial guztiek aitortua da euskararen normalkuntzaren alde lan egin beharra euskararik ez dakitene-kiko politika integratzailez, behinik-behin eta besteak beste, hizkuntza arazoak direla-eta liskarrik izan ez dezagun.

Egoera horretan, eta Andoaingo alderdi guztiek zenbaitetan aitortua denean politika integratzaile hori burutu beharra eta euskararen normalkuntzarako euskara bera lehenetsi beharra, sarri ikusi ohi dugu eguneroko politikagintzan euskararen normalkuntza ez dela lehentasunezko erreferentzi eta abiapuntu, eta hori gertatu izan da alkatea hautatzeko orduan.

Euskararen erabileraren normalkuntzaren alde egiteko bidea eragozpenez beteta dago, zein baino zein handiagoa gainera. Zaila dirudi, benetan, hizkuntzaz eta bere normalkuntzarako eragozpenetaz jabetzen ez den edo hizkuntz politika jakin horren aldeko gaitasunik ez duen alkate batek eragozpen horiek gainditzeko eta hizkuntz politika hori aurrera eramateko ahaleginaren buru eta arduradun egokia izatea.

- 1.2.- Andoaingo Udalak, duela 6 urte, 1/88 Udal Ordenantza onartu zuen, eta ordenantza horren helburua garbia da: euskararen erabileraren benetako normalkuntza eragitea Andoaingo herrian eta udaletxean bertan.

Udalak egin eta onarturiko Ordenantza horrek berak neurri oso zehatzak ezarzen ditu Udaleko iharduna euskalduntzeko. Besteak beste, esate baterako, udaletxeko langileek, gai izan ahala, euskaraz lan egin beharra agintzen du. Hizkuntz politika eta helburu jakin horien argitara ezinbesteko gertatzen da, eta dagoeneko hori frogatuta dago, Udalaren ardurarik gorena duen alkateak bere egitea helburu eta jokabide horiek, eta ezin da ardura hori beste inoren bizkarrera utzi. Nola uler liteke, bestela, Udaleko langileek euskaraz lan egitea eta lan-ihardun horren buru eta eragile nagusi dena euskalduna ez izatea edo euskaraz lan-egiteko gaitasunik ez edukitzea?

- 1.3.- Beste horrenbeste esan liteke herritarrei begira: herrian euskararen erabilera sustatzeko bere buruari lan eta ahalegin handia agintzen dion Udal bateko alkate izan al liteke hizkuntza hori ezagutzen ez duena edo aipatu dugun politika jakin horren alde egin ezin duena? Izan al liteke benetako euskalduntzearen bultzatzaile?

Inork ezin die ukatu andoaindar euskaldunei herriaren ordezkariarik gorena bere ordezkari ere izatea. Ba al liteke herri euskaldun batean alkatea euskalduna ez izatea edo euskararen erabilera normaltzeko ahaleginean ezin parte hartu ahal izatea andoaindar euskaldunen hizkuntz eskubideak eta sentimenduak gutxietsi, mindu ala narriatu gabe?

2.- Adieraziriko guztia aintzakotzat harturik, maiatzeko udal hauteskundeetara Andoainen aurkeztuko diren alderdi politiko eta hautagai-zerrenda guztiei ondokoa eskatzen diegu begirune osoz:

- 2.1- Korporazioko kide berriek lehenetsi dezatela Andoaingo Alkatea hautatzeko garaian alkategai euskalduna eta (/edo) gai izango dena Udalak berak onarturik daukan euskararen erabileraren normalkuntzaren aldeko politika behar bezala gauzatu eta aurrera eramateko. Andoaingo Alkatea herritar guztion ordezkari izan dadin.
- 2.2.- Beste horrenbeste egin dezatela Udal Korporazioa osatuko duten zinegotziei dago kienez, bai hautagaien zerrendak osatzean, baita ere, oso bereziki, Udalean osatzen diren batzordeetako ordezkariak izendatzean.
- 2.3.- Bilaka, bete eta betaraz dezala oso-osorik Udalak aurrerantzean 1/88 Udal Ordenantza, eta herritarrek bilakaera eta aplikazio horren berri zuzenean izan dezaten, osa dezala 1/88 Udal Ordenantza horretan aurrikusitako Udal Kontseilua.

▼ ANDOAIN

La Asociación Larramendi ve procedente la campaña en pro de un alcalde euskaldun

Para el PSE-EE un vasco parlante no tiene ni más derechos ni más privilegios

MARIVI OLANO/DV. ANDOAIN

La Comisión rectora de la Asociación Cultural Larramendi ha considerado lícita y procedente la campaña que viene desarrollando el colectivo 'Euskal Herrian Euskaraz' en favor de que el próximo alcalde sea euskaldun.

Esta asociación solicitará a los partidos políticos y candidaturas electorales que concurren a las próximas elecciones de mayo que den prioridad a la elección de un alcalde euskaldun y euskaltzale, que esté capacitado para desarrollar y conformar la política en pro de la normalización del uso del euskera. Asimismo, pedirán que actúen de la misma manera con relación a los concejales que formarán la próxima Corporación, tanto a la hora de confeccionar las listas, como a la de designar a sus representantes en cada una de las comisiones que se constituyen en el Ayuntamiento.

La asociación se pregunta si puede ser alcalde de un ayuntamiento comprometido en el esfuerzo de promover el uso del euskera quien desconoce el idioma o quien no puede coadyuvar a favor de una política de normalización de su uso. En opinión de la asociación no es posible que esto sea así sin que se menoscaben o subestimen los sentimientos y derechos lingüísticos de los andoaindarras euskaldunes.



La campaña está promovida por Euskal Herrian Euskaraz./UNANUE

Inquietud en la población

La Junta Rectora destaca que en Andoain conviven dos lenguas aunque afirma que el euskera se encuentra todavía muy lejos de un uso plenamente normalizado. Esta situación, prosigue la Junta Rectora, crea gran inquietud e incertidumbre entre la población euskalduna y ante la misma todos los agentes sociales reconocen la necesidad de trabajar en pro de la normalización del uso del euskera desarrollando una política de

integración de quienes no conocen nuestro idioma, con el objeto, entre otros, de evitar conflictos de carácter lingüístico.

La declaración aprobada por la Comisión Rectora de la Asociación Larramendi recuerda que el Ayuntamiento aprobó hace seis años la Ordenanza Municipal 1/88, cuyo objetivo es promover una normalización del euskera en el Ayuntamiento y municipio.

Campaña impropcedente

Por su parte, el PSE-EE ha califi-

cado de impropcedente e inaceptable la campaña de Euskal Herrian Euskaraz, destacando que «todos los ciudadanos que vivimos en este país, tenemos idénticos derechos y obligaciones, con independencia de la lengua en la que cada uno nos manifestemos». Los socialistas destacan que un alcalde vasco parlante no tiene por esta circunstancia ni más derechos ni más privilegios. Afirman que el próximo alcalde de Andoain será Josean Pérez Gabarain «porque así lo querrá la ciudadanía».

Tren Txiki 31 Taldea ofrecerá información en torno a su iniciativa

DV. ANDOAIN

A las 8.30 de la tarde está previsto que dé comienzo en la Casa de Cultura la reunión informativa en la que el grupo Tren Txiki 31 ofrecerá información sobre la iniciativa en la que viene trabajando, es decir, recuperar la última locomotora del Plazaola, actualmente en la localidad de Cubillos del Sil. Para lograr este objetivo el grupo prosigue con la recogida de firmas de apoyo a su labor. A este respecto, consiguen que la Corporación aprobase por unanimidad una moción en la que se pedía el apoyo municipal.

Por otra parte, este grupo tiene previsto llevar a cabo una nueva recogida de firmas entre las empresas y comercios de la localidad.

Socios de EAJ-PNV

La Junta Municipal del PNV, con motivo de las próximas elecciones municipales, invita a todos sus socios a la asamblea que se celebrará esta tarde, a las 19 horas, en la sede del partido.

Fútbol sala

A las nueve de la noche se disputará en la pista polideportiva del Allurralde el encuentro de fútbol sala entre el Pastelería Orkatz y el C.D. Eire.

Farmacia de guardia

Zatarain. Arteta s/n. Teléfono: 590802.

▼ URNIETA

Nuevo acceso a la iglesia parroquial de San Miguel Arcángel

Buen balance de la prueba ciclista federada celebrada en Urnieta

LANDAZURI /DV. URNIETA

Recientemente se ha procedido a la realización de una rampa de acceso a la iglesia parroquial de Urnieta en uno de sus laterales que permita el acceso de incapacitados a las funciones religiosas.

En la Comisión de Gobierno celebrada el 14 de marzo, se dio cuenta de una solicitud efectuada por la Junta Parroquial de Urnieta, en la que se solicitaba el correspondiente permiso o licencia para proceder a ejecutadas obras en el atrio de la iglesia San Miguel Arcángel, con el objetivo de eliminar unas escaleras y en su lugar instalar la rampa anteriormente mencionada.

Las obras han culminado ya. Para terminar de acondicionar la rampa, se ha instalado a su vez una barandilla lateral.

Gracias a esta entrada, se favorece el acceso de disminuidos físicos a la iglesia.

La rampa está diseñada para el acceso de sillas de ruedas.

Ciclismo escolar

El pasado sábado se disputó en el polígono industrial Erratzu, de Urnieta, una prueba de ciclismo federado.

Los resultados obtenidos por los ciclistas del UKE fueron los siguientes:

En categoría alevín, la urnietarra Nagore González obtuvo una nueva victoria, al igual que en el resto de la temporada. En categoría masculina, los chicos del UKE hermanos Goya no tuvieron fortuna.

En la categoría infantil, cuatro ciclistas del UKE se clasificaron en los seis primeros lugares. Tercero quedó Unai Martínez, en su mejor carrera de la temporada. Cuarto lugar correspondió a Mikel Legarreta, quinto llegó Jon Mikel González y sexto fue Beñat Astiasarán.

Poco a poco los chicos en categoría infantil van cogiendo ritmo y con ello en breve se esperan conseguir los triunfos.

Este próximo fin de semana los urnietarras acudirán a Villabona el sábado por la tarde a las 16 horas.

Rectificación

En la crónica de ayer les adelantábamos que la judoka urnietarra Mari José Sardón iba a acudir a participar en el campeonato de Guipúzcoa, pues bien, debemos rectificar esta información y señalar que Mari José ha sido convocada por la selección estatal para acudir a una competición internacional que tendrá lugar en Túnez.

Urnieta dejará de ganar una medalla segura en el campeonato de Guipúzcoa, pero por contra optará a conseguir trofeos internacionales.

▼ ASTIGARRAGA

Iniciativa en favor de la población de Sarajevo

Gizarte Kultur Etxea continúa con las 'Topaketak'

JOXE ORMAZABAL
DV. ASTIGARRAGA

Cuando se cumple el tercer invierno conflictivo al que no se le ve un final pacífico y justo, 200.000 ciudadanos de Sarajevo -su práctica totalidad- suscriben la "Declaración de Sarajevo, libre y unitario". La misma proclama aquellos principios que sustentan una convivencia humana y civilizada, además de reclamar el derecho de mantenerse como ciudad libre, abierta e indivisible con derecho a la diversidad, democracia y paz.

Los citados ciudadanos proponen firmar junto a ellos dicha declaración.

Como se viene realizando desde otros ayuntamientos, también los astigarragas tenemos ahora la posibilidad de adherirnos al plan que comentamos, aportando la adhesión en forma de firma en los listados que a tal efecto se encuentran a

disposición de todos los interesados, tanto en el propio Ayuntamiento, así como en Gizarte Kultur Etxea.

Taller de Padres

Continúan celebrándose en Gizarte Kultur Etxea las "Topaketak" dirigidas a padres-madres bajo la organización del Ayuntamiento.

Por supuesto, las previsiones en cuanto a participación e interés de los asistentes por cuantos temas se plantean, se han visto desbordadas.

Copa de Guipúzcoa

El presente torneo copero para equipos de fútbol en cadete Primera tendrá, a las 11 de la mañana de este sábado, su nueva cita en Zarkumendegi entre el Mundarro y Ordizia.

Ya en Preferente, pero a las 5.30, se juega en Herrera el partido de Liga en el cual se enfrentan Roteta y Mundarro.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ TALDEA:

“Andoaingo Alkatea: euskalduna, noski!”

Andoaingo Euskal Herrian Euskaraz taldeak maiatzako Udal hauteskundeetan herriak alkate euskalduna izan dezan kanpaina bat egiten ari da. Dagoeneko alderdi guztiek daukate kanpainaren berri, dena den, taldeak maiatza bitartean kalean egingo duen sinadura bilketaren emaitzak ezagutaraziko dizkie alderdi guztiei hausnartu eta

beraien ondorioak atera ditzaten. Taldekideek adierazi dutenez egitasmo honen bitartez ez dute alderdi baten edo bestearen alde egin nahi, baina argi utzi dute herriaren gehiengoaren borondatea alderdi abertzaleekin bat datorrela, eta horregatik uste dute Andoainen alkate euskalduna eskatzea zilegi dela.

• EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ TALDEA SINADURAK BILTZEN ARI DA

• “ALDERDI ABERTZALEAK DIRA GEHIENGO”

• ALDERDI GUZTIAK EZ DATOZ BAT EKIMENAREKIN

“Andoainen talde abertzaleek daukate indar gehien” esan digu Juani Lizaso EHEko partaideak, “baina gero euren arteko hitzarmenak direla medio, euskalduna ez den beste edozein jartzen dute, herriaren borondateari jaramonik egin gabe”. EHEren ustez talde politikoeak euskararekiko konpromezu eza frogatzen ari dira gaur egun behin eta berriro, zenbaitetan euskararekiko kontrako jarrera ere azalduz. EHEk zehatz-mehatz definitu du alkate euskalduna: euskara normaltasunez erabiliko duena; administrazioa euskaraz funtzionatuko duela ziurtatuko duena; kaleko plaka, kartel, eta bide seinaleak euskaraz jarriko dituen; idatzi guztiak euskaraz izango direla ziurtatuko duena; laburbilduz, euskararen aldeko konpromezu serioa izango duen alkatea.

EHEren ustez Andoaingo Udaleko Gobernu Batzordeak, erabaki guztiak bere eskuetan egonda, euskararen ordenantza aurrera eramateko ez du borondaterik agertu.

Udalaren azterketa

1988. urtean euskararen erabilera arautzeko Udal Ordenantza onartu zen. Atal batean langileek izan behar zuten euskara maila jasotzen zen. Langileak euskalduntzeko lehenengo plangintza, abenduan amaitzen zena, uztailean luzatu da eta Pello Iturrioz euskara teknikariak adierazi digunez lau langiletik hiruk, plangintzaren arabera derrigorrez betetzea dagokion euskara maila gaindituko du eta beste hainbatek, gehintsuena, maila polita eskuratuko dute. Dena den, lana

euskaraz egiteko orduan izaten dira arazoak, izan ere, politikariak dira lana sortzen dutenak eta hauek lana gazteleraz egiten badute langilea bera ere lana gazteleraz egitea behartuta dago, zeren eta ezinezkoa da, gaur eguneko giza baliapideekin egiten den guztia itzultzea, “aurpegi garbiketa baino ez”, bere esanetan, “bestalde”. Zehatzago esanez Alkatea eta Gobernu Batzordea dira lan administratibo gehiena sortzen dutenak eta beraz, “Udalaren barneko euskalduntzea benetakoa izan dadin, Alkate euskaldun, alfabetatua eta euskararen etorkizunaz kezkatuta dagoena izatea” deritzo gokien.

Pello Iturrioz ustez langilegoa euskalduntze bidean jarri ondoren bi dira oinarrizko zutabeak euskaraz lan egiten hasteko: Udaleko langileen beraien konpromezua eta ahalegina eta, batez ere, Alkatearen eta Gobernu Batzordearen jarrera eta erabakia, berauek finkatzen baitute, azken batean, hizkuntz politika eguneroko lanarekin. Horren ildotik, euskalduntze prozesuan pauso garrantzitsuak eman badira ere, nahikoak izan ez direlakoan dago, ez baita lana euskaraz egiteko erabakirik hartu. Eta horrek itzulpena garamatza derrigorrez, benetako aurrerapausorik egin gabe.

Adibidez, gero eta gehiago omen dira herritarrek euskaraz egiten dituzten era guztietako eskaerak. Ordenantzaren arabera, euskaraz tramitatu beharko lirarteke, baina politiko erdaldunak izanik ezinezkoa denez, itzulpena hasieran eta itzulpena amaieran.

EHEN KANPAINA APROBETXATUZ UDAL HUTESKUNDEETAN ZERRENDABURU IZANGO DIREN HAUTAGAIENGANA JO DUGU IRAKURLEEI AURKEZTEAZ GAIN EGITASMOARI BURUZKO IRITZIA EZAGUTZERA EMAN DEZATEN.

HERRI BATASUNAK, EAJ-PNV - EUK ETA EZKER BATUAK ARTIKULU HAU EGITEKO GARAIAN,
ARTEAN, BEREN ALKATEGAIK AUKERATU GABE ZEUZKATEN

“Berez ateratzen zaizkigu euskaldunak”



Maxen Zinkunegi eta Mikel Arregi: “Kanpainari ez diogu garrantzi handiegirik eman. Guri logikoa iruditzen zaigu herri euskaldun batean alkatea euskalduna izatea, baina kanpainan euskara instrumentalizatu egin dutela


iruditzen zaigu, eta hori kezagarria da. Guk zerrendak osatzean ez dugu horrelako baloraziorik egiten, pertsona aproposena bilatzen dugu, eta berez ateratzen zaizkigu hautagai euskaldunak.

Udalean euskararen egoerari dagokionez, Udalak berak onartutako ordenantzarik ez dela betetzen ari esan behar da. Euskaraz egiten dena baino gehiago egin zitekeen, horretarako alde batetik, Udalak medio gehiago jarri beharko lituzke, daudenak ere hobeto aprobetxatuz, eta bestetik, politikariok gehiago erabili beharko genuke. Baina hori guztia inongo dramatizaziorik gabe. Euskaldunak geranez, bizimodu normalean euskaraz egiten dugun bezala, egin beharko genuke Udalean. Dena den, euskaldunak dauden batzordeetan euskaraz egiten dugu, eta ziur aski, guztiok euskaldunak izango bagina euskaraz egingo genuke. Azken helburua bi hizkuntzak bata bestearen parean jartzea da, eta elebitasunean bizitzea.

Kalean orain dela urte batzuk baino gehiago entzuten da. Euskararen une larrienak iragan ditugu eta aurrerantzean euskara era naturalean erabiltzen badugu, aurrera egingo du. Gure programaren zirriborroan ordenantza betetzeari emango diogu lehentasuna. Ondoren ordenantzari herriari birako proiektzioa eman behar zaio”.

Larramendi Bazkuna

Kanpainako oinarritzko eskakizuna egiteari zilegi eta bidezko deritzola adierazi du Baz-kunako Zuzendaritza Batzordeak, eta alderdi politiko



LARRAMENDI


guztietan ondokoa eskatzen die: lehenik, korporazio kide berriek lehenetsi dezatela alkatea hautatzean alkategai euskalduna eta (/edo) gai izango dena Udalak berak onarturik daukan euskararen erabilearen normalkuntzaren aldeko politika behar bezala gauzatzeko, Andoaingo alkatea herritar guztion ordezkari izan dadin. Bigarrenik, beste horrenbeste egin dezatela Udala Korporazioa osatuko duten zinegotzietan dagoenik, Udala osatzen duten batzordeetako ordezkariak izendatzean. Eta hirugarrenik, bilaka eta bete dezala oso-osorik Udalak aurrerantzean euskal Udala Ordenantza.

“Zinegotzi edo alkate izateko ez da azterketarik eskatzen”

JOXE MARI ORMAZABAL LOINAZ (EA)

La Salle-Berrozpeko irakaslea
38 urte

1992. urtea geroztik zinegotzi
Independentea



**eusko
alkartasuna**

“EHeren proposamena oso ona iruditzen zait. Derrigorrezkoa da Andoaingo Alkatea euskalduna izatea. Euskal Herrian gaude, eta EKEko hizkuntz ofizialak gaztelera

nabiz euskara direnez, Alkateak biak jakin beharko lituzke. Administrazio publikoan lan egin nahi duen edonori eskatzen zaio hizkuntz eskakizuna; zinego-

tzi edo alkate izateko berriz, ez dago inongo azterketarik gainditu beharrik. Gure zerrendan aurreneko postuetan guztiak dira euskaldunak. Euskaraz ez dakitenak ere badaude, baina euskara sentitu egiten dute.

Gure aldetik aurrerantzean ere euskararen alde herrian egiten diren ekintzak bultzatzen eta laguntzen jarraituko dugu, nahiz eta azken bolada honetan Udala estu-estu ibili den diru arazoak direla eta.

Andoaingo Udala izan zen hizkuntz eskakizunen politika aurrera eramaten aitzindari. Hizkuntz eskakizunak egoki betetzen ari dira, eta orain arteko prozesua positibotzat joko nuke. Udala langileak baino gehiago, politikariok egiten dugu askotan huts. Bestalde, herrian euskararekiko kontzientzia areagotu egin dela iruditzen zait. Dena den, oraindik kalean euskara normalizatzeko urrun gaude. Herriak udaletxean dagoen euskara maila lortuko balu, ez legoke gaizki”.

“Kanpaina desegokia eta antidemokratikoa da”


JOXEAN PÉREZ GABARAIN (PSE-EE)

Enpresa antolaketa teknikaria. 51 urte.

1979tik 1983ra Andoaingo Alkate (EE)

Egun Udal Kirol Patronatoko lehendakari ordea.

Euskara ulertzen du, hitz egiten ez duen arren.



“Alkate euskaldunari dagokionez, funtsezkoena alkate izateko gaitasunari dagokio, euskaradun izateak adjetiboaren lekua betez.

Hobe, dudarik gabe, bi hizkuntz

ofizialak menperatuz gero, baina bakarria jakiteak ezin dezake inolako bazterketarik suposa.

PSE-EEk Udal hauteskundeetara aurkezten duen ze-

rrendan euskaraz hitz egiteko gai direnen portzentaia garrantzizkoa da: horien artean euskal irakasle eta bizketaldi arruntetan hitz egin eta ulertzeko gai diren dozena erdi lagun. Bozeramaleak euskara menperatuko du.

Kanpaina guztiz desegokia eta antidemokratikoa iruditzen zait. Taldeak sinadura biltzearekin zera nabi du: maiatzako hauteskundeetatik sorturiko alkatea euskaradun izatea. Hala ere, kanpaina ez da iritzi eskakizun moduan egiten; ez dago galderarik, baieztapen irmoa baizik: Alkate euskalduna, noski! Proposamenak ez dio Estatutoaren ildoari jarraitzen, nazionalista batzuek ezarri nabi duten monolingusmoari baizik. Eta euskara ez da nazionalisten ondarea bakarrik.

Gure programan erreferentzia eta ardatza Euskararen Normalkuntzarako Legea izango da. Euskararen berreskurapenean aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, baina kontuan hartu behar da ezin dela inposaketa bidez bideratu. Arazoak denbora behar du eta ez da diskriminaziorik eman behar”.

“Politikariok erakutsi behar dugu euskararekiko benetako borondatea”



J.J Petrikorena Herri Batasuneko kidea: “Erabat ados gaude kanpainarekin, eta horixe bera aldarrikatu dugu geuk ere gure programan. Batetik, nabikoa eskarmentu izan dugu

Pilar Collantesen legealdian, euskararekiko izugarritzko axolagabekeria erakutsi baitu, eta ondorioz atzerapauso handiak eman dira Udalean. Bestetik, legez aitortzen zaigun eskubidea aldarrikatzen dugu. Hizkuntz ofizialak euskara eta gaztelera dira, eta herritarrek Udalarekiko harremanetan batean zein bestean jarduteko eskubidea daukate.

HBk zerrendak osatzean ezinbestekotzat jotzen du hautagaiak euskaldunak izatea. Dena den, hau ez da butsetik ateratako zerbait; gure eguneroko jarduna ere euskaraz izan dadin lan handia egiten dugu.

Herrian nabiz udaletxean euskarak bizi duen egoera oso kezkarria iruditzen zaigu: erabileran daude hutsune handiak, eta gazteengan gaztelararako joera oso nabaria da. Euskararekiko kontzientzia berzpiztea eta presio soziala egitea ezinbestekoak dira egoera benetan konponezina bihurtzerik nabi ez badugu. Eta alde horretatik HBk ongiatorria eman nabi dio EHE taldeari.

Euskararen Udal Ordenantza oso tresna egokia da euskara bultzatzeko, baina ez azkenengo legealdian ezta lehenago ere ez da kontuan hartu. Borondate politikoa falta izan da. Bestalde, politikariok erakutsi behar dugu euskararekiko benetako borondatea, gure adibidea oso garrantzitsua da. Gure aldetik borondaterik ez badago, gutxi eskatu abal izango diogu herriari.

Gure programan, euskarari dagokionez, ordentantza betetzera joko dugu. Behingoz saltoa eman, eta udaletxean euskaraz lan egiten hasi beharra dago. Horretarako epeka betetzeko plangintza zehatza aurkeztuko dugu aurki, izan ere horretarako talde guztien adostasuna behar da”.

“Andoainen euskaraz bizi daiteke”



Miguel Angel García, Ezker Batuko hautagaia: “EHE taldearen kanpaina positiboa da; administrazioan lan egiten dutenek nabiz politikariek bi hizkuntz ofizialak

jakin beharko lituzkete. Gure alderdiari ere zerrenda osatzean garrantzitsua iruditzen zaio hautagai euskaldunak osatzea, gutxienez ulertzea eta zertxobait hitz egitea. Dena den, momentuz ni naiz euskaldun bakarria.

Andoainen euskararen egoera ona da, euskaraz bizi daiteke. Dena den, gaur egun Udala zenbait gairi arreta gehiago eskaini beharko lieke, helduen euskalduntze eta alfabetatzeari, adibidez; euskaltegiak helarduak joan beharrean, gaztetxoak joaten dira. Bestelde, OHOean, A eredian batez ere, euskararen ezagutza ziurtatu beharko litzateke.

Udal langileei dagokionez, euskara ikasten denbora gehiegitxo igarotzen dutela iruditzen zait, lan orduetan eta ordainduta, gainera. Nire ustez gogorrago egin beharko litzateke. Ezker Batua Udaleko idatzi guztiak euskaraz nabiz erdaraz kaleratzearen aldeko da, nabiz eta itzulpenen bidez hori egitea oso garestia izan. Politikoez berriz, askotan euskara itxurakeria hutsez erabiltzen dute jende aurrean, eta beste batzuek, PPK eta UAK adibidez, arma politikoa bezala”.



MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA

ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU, BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Dr. Huizi kalea, 15-1. ezk. 20140 ANDOAIN. (GIPUZKOA)
Tel.: 300733 Fax: 300731 IFZ.: G20438073

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ EUSKO ALDERDI JELTZALEA EUSKAL EZKERRA HERRI BATASTUNA EUSKO ALKARTASUNA

Agur t'erdi:

Idatzi honi erantsirik Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak joan den martxoaren 16an Asteasun egin zuen bilkuran onarturiko adierazpenaren aldakia bidaltzen dizut.


Adierazpena Euskal Herrian Euskaraz taldeak Andoainen egin berri duen kanpainako oinarritzko eskakizunari buruzkoa da, eta kanpainarekin berarekin edo aipatu talde horrekin beste inongo loturarik ez duena.

Gure hausnarketa ontzat izango duzuelakoan, hartzazue gure agurrik adeiena.

Andoain, 1995, martxoak 21.

Lehendakaria,




Izpea.: Jon Unanue López



MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA

ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU, BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Dr. Huizi kalea, 15-1. ezk. 20140 ANDOAIN. (GIPUZKOA)
Tel.: 300733 Fax: 300731 IFZ.: G20438073

ANDOAINGO PSE-EE-PSOE
Arrate Plaza, 6

20.140 ANDOAIN

Agur t'erdi:

Estimados Sres./Sras.:

Idatzi honi erantsirik Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak joan den martxoaren 16ean Asteasun egin zuen bilkuran onarturiko adierazpenaren aldakia bidaltzen dizut.

Adjunto al presente escrito les remito copia de la declaración aprobada por la Junta Rectora de la Asociación Cultural Manuel Larramendi en su reunión celebrada en Asteasu el día 16 de marzo de 1995 .

Adierazpena Euskal Herrian Euskaraz taldeak Andoainen egin berri duen kanpainako oinarritzko eskakizunari buruzkoa da, eta kanpainarekin berarekin edo talde horrekin beste inongo loturarik ez duena.

La declaración es relativa a la solicitud substancial realizada en la campaña que ha desarrollado recientemente el grupo Euskal Herrian Euskaraz en Andoain, y no tiene ninguna otra relación ni con la campaña en sí ni con el grupo en cuestión.

Gure hausnarketa ontzat izango duzue-lakoan, hartazue gure agurrrik adeiena.

Esperando consideren oportuna nuestra reflexión al respecto, reciban un cordial saludo.

Andoain, 1995, martxoak 21.

Andoain, 21 de marzo de 1995.

Lehendakaria,



Jon Unanue López
Izpea.: Jon Unanue López



MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA

ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU, BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Dr. Huizi kalea, 15-1. ezk. 20140 ANDOAIN. (GIPUZKOA)
Tel.: 300733 Fax: 300731 IFZ.: G20438073

DEIA Egunkaria
EL DIARIO VASCO (Andoain)
Euskaldunon EGUNKARIA
EGIN
ARGIA Astekaria

Agur t'erdia:

Idatzi honi erantsirik Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Bartzordeak joan den martxoaren 16ean Asteasun egin zuen bilkuran onarturiko adierazpenaren aldakia bidaltzen dizut.

Adierazpena Euskal Herrian Euskaraz taldeak Andoainen egin berri duen kanpainako oinarritzko eskakizunari buruzkoa da, eta kanpainarekin berarekin edo aipatu talde horrekin beste inongo loturarik ez duena.

Honekin batera, denetara HIRU orri dira doazkizuenak. Besterik gabe, bihoakizue gure agurrik adeiena.

Andoain, 1995, martxoak 24.

MANUEL DE LARRAMENDI
ELKARTEKO ZUZENDARIA

Zuzendari jaun agurgarri hori:

Bidali zeniguten Zizurkilen hartutako akordioan eta orain egun batzu "El Diario Vasco"n argitara emanikoan garbi dago "Euskalerrian euskaraz" taldeak plazaratutako kanpainaldiarekin bat zatoztela.

PSE-EEK, ausardia bada ere eta, begirune osoz, zera komenta eta gomenda nahi lizueke:

Udal hauteskundeetako gurpilean sartu nahi ez duzuela adierazteak ez duela eman dituzuen pausoak eta zeuen burua zuritzen; asmoak eta errealitatea ez doazela bat, alegia.

Uste dugula "El Diario Vasco"ko azpтитuluak "campana procedente" geuk erabilitako "improcedente"ari kontrajartzea kazetariaren ardurapekoa dela.

AIURRI aldizkarian zenbait Partidu eta Taldeekiko begirunea - EAJ-PNV Andoainen eta BIDEAN Billabonan- besterekin izan denarekin erkatuz ez dela bereberkoa izan.

Bestalde, eta guk dakigunez, EAJ-PNV eta EuEk ez dute Andoaingo Udal Hauteskundeetarako elkarte elektoralik osatu, baizik eta lehenengoaren hautagai-zerrendan bigarrenetiko zenbaitzu "independiente" moduan txertatuko omen dira.

Bukatzeko, eskertuko genizueke, udal hauteskundeetan Partiduen jokoan ez sartzea eta zuen aldizkarian guztioi aukera berberak ematea.

Berriro ere, gure agurrik beroena.

PSE-EEKo Andoaingo Elkarteko prentsa arduraduna.

